



ALDARRIKAPENEK ERE BADUTE GUNEA

Presoen aldeko sagardotegia Abastosen eta hainbat eragilek antolatutako Txosnagunea Euskal Herria plazan >6

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Asteartea
2009-02-24

VIIURTEA 1.638.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

HERRIA DANTZAN

TOLOSA Aisialdi taldekoen txanda izan zen atzokoan, mozorroak, karrozak eta konpartsekin batera

GAUR Inauterien azken eguna izango da; pattar zezena, xexen-festa, 'Sardinaren hileta', karrozak, konpartsak... 2-5



1.000 gazte inguru irten ziren atzokoan kalera dantzazera. Irudian, Kirikiño aisialdi taldekoak Mario Bros mozorroarekin. I. TERRADILLOS

LIBURUA SALGAI

Salmenta:

Liburuaren prezioa: 18 €

Galtzaundi eta Tolosaldeko eta

Leitzaldeko Hitzako bazkideak: 14 €

Eskaintza bereziak:

5 liburu 80€	10 liburu 140€
-----------------	-------------------

Salmenta puntuak:

- Galtzaundi eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitzako bulegoetan,
- Tolosako Aranburu, Babel eta Elkar liburudendan.
- Ibarako Lurdes liburudendan.
- Villabonako Basajaun liburudendan.



1936KO GERRAKO
ORITZAPENAK
TOLOSALDEAN ETA LEITZALDEAN

ARANZADI



TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Lehen eta orain: SOKA MUTURRA



Sokaren muturrean dagoenari adi

SOKAMUTURRA • Aspaldiko ohitura da sokamuturrarena, eta lehen egun baino indar gehiago izaten zuen. Goiko irudian lehen izaten zuen arrakastaren adibide bat ikus dezakegu. Hain zuzen ere, 1934. urteko otsailaren 11n ateratako argazkia da, urte haietako Inauterietan. Plaza Berrian egiten zen orduan ere sokamuturra. Orain ere leku berdinean egiten da eta batez ere gazte jendea biltzen da bertan, atzo ateratako argazkietan ikusten denez. Tolosano txarangak girotu zuen sokamuturraren ekitaldia. JE-SUS ELOSEGI 1907-1979 / I. GARCIA



«Tolosako Inauteriak herrikoiki dira eta hauetan parte hartzeko aukera badago»

OLATZ TELLERIA • Inauterizalea

Tolosa » Karroza beti azken ordura arte atontzen ari izan da Olatz Telleriaren lagun taldea, baina azkenean, beti prest.

REBEKA CALVO

Ferialekuan, Inauterietako asteen murgilduta jada, margoketa lanean Olatz Telleria jo eta ke ari zen (Tolosa, 1986). Beasainen egiten du lan orientatzaile eta aisialdi talde bateko begiralea da. Aurten, asteartean jai izango du lanean eta gozatzeko beraz, egun bat gehiago. **Zein da Inauterietan gustukoena egun eguna?**

Denak gustatzen zaizkit. Lan gehien egiten dugun eguna astelehena da, aisialdi taldeko begirale naizelako eta beraz, gehien disfrutatzen dugun eguna astelehena da. Baina igandea eta astearte ere asko gustatzen zaizkit.

Paranda latzak egin izan dituzu?

Bai, baina egun batzuk nekatuago sentitzen gara eta leher eginda bu-

katzen dut. Eguna eta gauaren artean aukeratzekotan, aukera izan gogaltzeko behintzat biak hartuko nituzke.

Mozorrotzen zara?

Bai baina ezin dizut esan zein den gehien gustatu edo gustatzen zaidana. Denak gordetzen ditut, hori bai. Gustukoak denak ditut.

Kanpotar bati zer esan Tolosako Inauterietan?

Animatzeko eta etortzeko ikustera. Bakoitzak bere modura azaldu-

Inauterietan lana egitea egokitzen zait baina ez zait inporta; txikitatik bizi ditut aisialdi taldeak

ko luke nolakoak diren baina herri-eror tor daitezen esango nieke, ezagutzeko.

Parte-hartzaileak iruditzen zaizkizu Tolosako Inauterietan?

Bai, herrikoiki dira. Tolosatik kanpokoak direnek ez dute guk bezala sentituko... Herriko jendea ere gehiago implikatzen da. Dena dela,



N. URBIZU

aukera handiagoa dago parte hartzeko eta ondo pasatzeko Tolosako Inauterietan, Donostiakoetan baino, herrikoikiagoak direlako.

Noiz hasten zara urduritasuna nabaritzen?

Inauterien aurreko astelehenean: Ostegun Gizona dator, ostirala, larunbata, giroten hasten zara eta karroza bukatu gabe dagoela ikusten baduzu... Korrika eta presaka ibiltzen gara, baina azkenean igan-

derako karroza bukatuta izaten dugu.

Urtero zure Inauterietan zer ezin zaizu falta?

Niezin naiz falta! Behin giroan sartuta ez du inporta: peluka bat, garagardo bat... Azken finean, hortik aurrera, datorrenak giroan sartu behar du.

Antzerkia egiteko ohitura duzue?

Ez dut inoiz mozorrotzearen taktika hori erabili. Egia da beti askeago ibiltzen garela mozorrotuta baino hortik aurrera... Tontoarena egiten dugu, eta bai, ezezagunekin sartzeko mozorro egoki bat aukeratzeko saiatzen zara, inork ez ezagutzeko, baina horretarako problemarik ez daukat!

Bada probatu, ez da batera txarra. Ia bada, taktika hori erabiltzen dugun!

Lana egitea egokitzen zaizu urtero beraz?

Bai, baina ez zait inporta. Sei urte nituenetik aisialdi talde batean nabil: nerabea nintzenez ere parte hartzen nuen, begiralea naiz eta koordinatzailea orain. Gorago ezin naiz iritsi hemen behintzat.

Aurtengo Inauterietan nola biziko dituzu?

Asteartean jai izatea lortu dut lanean, beraz, egun hori ere gozatuko dut. Bestela, asteazkenean lanera, eta astelehenean, esan bezala, haurrekin ariko naiz, aisialdi taldearekin.



IMANOL GARCIA

Inauterizale askok esaten du: Tolosako Inauteriak ez liraterke berdinak izango txaranga-rikgabe. Heldu, gazte zein haurrak aurkitu daitezke txarangen inguruan eta egun guztian zehar.

Txaranga doinuak garrantzitsuak badira uneoro Inauterietan, bereziki protagonista bi mementotan dira: zezen-plazara joateko eta handik etortzeko kalejira eta Berdura plazako kontzertuak. Atzokoan zezen-plazarako bidea alaitzeko txaranga ofizialak Tolosano, Poca Tripa eta Ortzadar izan ziren.

Plaza Zaharra izaten da abiapuntua. 16:00etan elkartu eta ordu erdian egin behar izaten dute zezen-plazarako bidea: Kale Nagusia, Gorriti plaza, Korreo kalea, Triangulo plaza, San Frantzisko etorbidea, Oria kalea eta zezen-plazari buelta jendearen txalo eta dantzen artean. Txaranga-jole batek dioen bezala: «Inauterietan beti betetzen da plaza».

Kontzertu herrikoia

Eguneko beste une bereziena txaranga-zaleentzako Berdura plazan egiten den kontzertua izaten da. Bi ordu gorputza mugitzeko, salto, brinko eta jauzi egiteko. Zezen-plazatik bueltan joandako jendetza, urtean zehar egiten den manifestazio alaienean parte hartzen dutenek bat egiten dute kristalezko sapaia eta xakezko zoria duena. Eta leku horretan sortzen da kontzertu herrikoiena.

Txarangek izugarritzko nortasuna ematen diote Tolosako Inauteriei. Hainbat ekitaldi alaitzen dituzte eta beraien inguruan sortzen diren kalejirak ere festen ekitaldi bihurtzen dituzte. Halere, bi unetan dira bereziki protagonistak: zezen-plazarako joan-etorriko kalejira eta Berdura plazako kontzertuan.

Manifestazio alaiak



Tolosanoko kideak kalejira Alde Zaharretik. I. GARCIA



Zezen-plazarako kalejira eguneko alaienetakoa izaten da. I. GARCIA



Tolosano txarango tronpetak sokamuturra alaitzen Plaza Berriko kioskotik. I. GARCIA

H Hilberria

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
 Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
 DOAN agertuko da

hilberriak
 urteurrenak
 eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldekohitza.info / Tel.: 943-65 56 95

ARITZ ODRIUZOLA MENDIA

Ori gainean
 Izarra,
 Gure bihotzetan
 Negarra,
 Mendiko oihartzunetan
 Zure irrifarra.
 Agur Aritz

Lagun Onak Mendi Bazkuna

AZPEITIA, 2009ko otsailaren 24a





GAZTEENEN TXANDA



Kirikiñoko gazte eta helduak, 300 bat inguru, Mario Bros pertsonaia aukeratu dute artengo koreografa egileko. **1. TERRAOLLOS**

Inauteriak Aisialdi taldeen txanda izan ezin atzo; Atsedena, Txiribitu, Ttentek, San Bernardo, Kazkabarra eta Kirikiñoko gazteek ederki alaitu zituzten herriko kaleak.

EBREDAKIZIOA

Cazafantasmak, Heidi, heavyk, gotikoak, raperoak, edurne zuri eta zaapi ipotsak, pantera rossa, doramen, Gatchet inspektorea, Mario Bros... Pertsonaia ezagunak gerturatu ziren atzokoan Tolosara. Festan murgildu ziren bete betean, gaitere, dantatuz.

Aisialdi taldeen dantzaizentada Astelentean eta atzokoan ere ez zuten kale-egin. Zonen-plazatik abiatu ziren gaztiak, 1100ak aldera, eta aurten herrian dauden obrak direla eta aisialdi taldeek ere euren ibilbide aldatu behar izan zuten. San Frantzisko pasealekuan ibili ziren lehenik eta handik Forasen etorbidera joan ziren. Nafarnauberide-tik barrera iritsi ziren, azkenik, bertze ere zezen-plazara.

Sei talde

Sei aisialdi taldeek hila batek eman dituzte koreografiak eta jantziak aldatzen. Euren artean oso harenenak onu dute, gainera, eta horren adibide atzo gertatutakoa, izan ere, Kazkabarrakoak, plattformako musikaik huts-egin ostean, Kirikiñokoekin ibili ziren.

Atsedenaok aurtan Cazafantasmaren mozerroa aukeratu dute. Tolosko helduak ebiztatuz ikusi ahal izan genituen eta txikiak: mamuz, Txiribitokoi, bertze, Hezikle atara ziren; murraki biziak ezagun hauek lau pertsonaia ekarri zituzten Tolosara: Heidi bera, auto-na, Pello eta Klara. Ttentekokok, bere aldeak, kirikiñokoak irudikatatu zituzten; heavyk zeuden, baita gotikoak edota raperoak ere.

San Bernardoko gai klasikoak aukeratu dute. Edurne zuri eta zaapi ipotsak. Edurneren zai zeudena, hala ere, ezin izan zuten ikusi, izan ere, ipotsak bakarrik egon ziren kaleetan bama dantzatzen. Kazkabarrak ere murrakizki bizidunak gorpuztu zituen. Pantera Arrosa zegoen, Doramen, Gatchet inspektorea, Son Goku eta Vicky bikingoa. Azkenak Kirikiñokoak izan ziren, Mario Bros aukeratu zuten.

Guztira 1.000 gazte eta heldu inguru ibili ziren dantzatzen kaleetan zehar. Baskalku eta goz, bari bai, zezen-plazara joan ziren gaztiak pilak kargatu eta arratsaldian bertze ere dantzatzen zeraitezko.



Kazkabarra aisialdi taldekoak marrakizki bizidunak atara ziren; Pantera Arrosa, Doramen, Gatchet inspektorea, Son Goku eta Vicky bikingoa, zehazki. **2. CAUVO**



Atsedenaok kirikiñoko tribuak aukeratu dituzte; raperoak, gotikoak, heavyk... **3. CAUVO**



Atsedenaok Cazafantasmak aukeratu dute. **4. CAUVO**



Txiribituko Heidi eta Pello dantzatzen ibili ziren San Frantziskoan. **5. CAUVO**



San Bernardoko 1000 helduak Edurne Zuri eta zaapi ipotsak bezala atara ziren dantzatzen. **6. CAUVO**

harpidedun izateak badu saria

- 1 **Ileapaindegian zerbitzu osoa**

www.bonkin.com
bonkin@bonkin.com
 900 00 00 00
 San Martin 14 48100
- 2 **laguntzako afaria**
 Zabala Sagardotegian
 Garagartza baserria
 Tel.: 943 69 07 74 • 20150 ADUNA (Gipuzkoa)
- 3 **laguntzako afaria**
 Erreka Sagardotegian
 Erreka auzoa • LEITZA • Tel.: 948 51 08 25
 (BIZKAIAREN LEITZA - HERRIAREN OINERAN)
- 4 **hitzaren material sorta**

parte hartzezko dituzte: **902-82 02 40** telefono zenbakira 09:00etatik 17:00etara (harpidedunen kodea eskura duzula)



Aldarrikapen topaguneak

Inauteriak » Txosnagunean eta Sagardotegian jaiak aldarrikapenekin bat egiten dute. Urtero bezala, Inauterien zati bat gehiago dira.

ASIER IMAZ

Inauterietan aldarrikapenak bere guneak ditu. Bat presoan aldeko sagardotegia izan daiteke eta beste hainbat talderen artean antolatuta duden Txosnagunea.

Sagardotegiak 10 urte

Amnistiaren Aldeko Mugimenduak Inauterietan Abastosen zabalitzen duen sagardotegiak 10 urte bete ditu aurten. Boluntarioen lanari esker funtzionatu du eta «tokia izanez gero aurrera jarraitzeko» gogoz agertu dira antolatzaileak.

Atzera begira jarrita, dena erraza ez dela izan aipatu dute AAMko kideek: «Bere garaian txozna jartzan genuen. Orain dela 10 urte sagardotegiaren ideia okurrirru ziztaigun, presentzia mantentzeko beste modu bat bezala, beste era batetara. Haseran propaganda gutxiagatik edo ezagutzen ez zutelako jende gutxi etortzen zen. Lehengo urtetik aurrera berriz oso ondo. Aurten, ostegunetan eta ostiralean oso ondo. Larunbatean bertan, tabernetako estatusunik ihesi.

Presoen aldeko sagardotegian bakaileu tortila, txuleta edo sahieskia eta postrea eskaintzen dute, sagardo kupelen babesean. Ardoa nahi duenak ere aukeran edukitzen du. Antolatzaileei bertara joaten denak zer aurkitzen duen galdetuta, zera aipatzen dute: «Lehenik eta behin presoan aldeko bilgune bat. Eta ondoren, aitari eder bat; orain arte ez zaigu alde horretatik inor kexatu».

'Txozna EH-ren parte... ta ez utzi aparte'

Zazpi talderen artean antolatuta dute aurtengo Inauterietan Txosnagunea, Euskal Herria plazan. «Mugimendu sozialei lotutako taldeak» dira, «chau da, herriari ekarpenak» egiten dizkieten taldeak: AHT Gelditu! Elkarlana; Gazte Independentistak; Euskal Herria Eraiki; Euskal Herria Sozialista; Bilgune Feminista; Ikasle Aber-

tzaleak eta Sanblaspeko Gazte Asanblada.

Arduradunek guneari aurten jarri dioten leloa *Txozna EH-ren parte... ta ez utzi aparte* izan da. Berrikuntzen artean barraren eta eszenatokiaren kokapena, Astelentako kontzertua eta kokalekuaren inguruan «Udalarekin arazo handiegirik eza» izan dira. Batzorde antolatzailearen esanetan, Txosnaguneak ezin du hara eta hona ibili leku finkorik gabe: «Kokalekuaren arazoa oraindik hor dago. Guretzat Euskal Herria plaza da gune posible eta egoki bakarra. Gure ustez jaiaren parte gara eta Txosnaguneak jaiaren barruan egon behar du, ez herritik kanpo».

Jendearen erantzuna ikusiz gero, aldarrikapen gune honek jaiari kalte baino mesede gehiago egiten diola esan daiteke. Larunbatean uste baino jende gutxiago ibili arren, Tolosa osoan bezala, gainezka egon da Txosnagunea. Herenegun eta atzo, jende ugari osatutako konpartsak egonaldi ederrak bota zituzten bertan, tabernetako estatusunik ihesi.

Aldarriari dagokionez, Txosna Batzordeko talde bakoitzak urte guztian bezala, jaietan ere lanean jarraitzen du Euskal Herria plazan, euren lelo eta ideiak zabalduz; norbanakoaren gainetik taldean lan eginaz.

«Eskualdeko iheslari eta preso politikoen argazkia»

Herenegun Inauterietako hainbat koadrila Txosnagunean elkartu ziren «eskualdeko preso eta iheslari politikoen argazkia ateratzeko». Hainbat herritar «etxetik hurrin dituzte» eta eurei elkartasuna agertzeko 70 bat lagun elkartu ziren argazkirako prest.

Azkenik, herenegun manifestazioa burutu zela aipatu behar da. Txosnagunetik 00:00etan irten zen mobilizazioa eta «jende ugari elkartu» omen zen bertan. Ilegalizazioaren aurka eta «Andoni Otegi presoak jasotako jipoiak» salatuzko burutu zuten protestaldia.

@ Bideoak. Gure web orriko atal honetan 2009ko Tolosako Inauterien inguruko bideoak ikusteko aukera aurkituko duzu. Horretaz gain, gure bi eskualdeetan inauterien inguruan ospatu diren hainbat ekitaldi daude *bideoak* atalean. Azkenik, gaiaren inguruan zure iritzia idazteko aukera eskaintzen dizugu gure web orriak:

www.tolosaldekohitza.info



Txosnagunean jende ugari elkartu zen herenegun jaiak eta aldarriekin bat eginaz. A. IMAZ



Amnistiaren Aldeko Mugimenduak antolatzen duen presoan aldeko sagardotegiak 10 urte bete ditu aurtengoa. A. IMAZ



«Eskualdeko iheslari eta preso politikoen argazkia» atera zuten hainbat koadrilek herenegun. A. IMAZ

Iragarki laburrak

LANA

■ **Bigi Garbitasunak.** Alfonbrak, etxeak, bulegoak etab. garbitzeko prest. Deitu inongo konpromezurik gabe. Irene. 638 94 46 04 edo 695 70 82 71.

San Martin aldeko baserriak bisitatu dituzte talaiek

Amezketeta » Bedaio aldera ez ziren joan azkenean, baina urtero bisitatzen dituzten baserrietara joan ziren, guztira 16 gazte.

NEREA URBIZU

Amezketako baserriak dantzan. Txakurrak ere dardarka. Makilak mugimenduan. Inauterrien ongietorria herenegun eta atzo agurra

izan zen Amezketan. Talai-dantzariak jo eta fuego aritu ziren dantzan, baserriz baserri, San Martindik gora.

Berez Bedaioa joatekoak ziren baina azken momentuko aldaketak egin zituzten eta azkenean, elkartu ziren 16 talaiek Amezketatik beste aldera jo zuten, hori bai, Ugarte inguruko eta Bedaioako bidean dauden baserri batzuk bisitatu ondoren.

12:00ak aldera San Martinengo-

saldu zuten talai-dantzariak. Asko herenegun atera zirenak ziren, eta seguruenik besoetan eta hainbat lekutan axubetak izango dituzte. Baina baserriarrek eskertzen dute gazte hauen emanaldia eta bixita, urtean behin ikusten baitute Amezketan bakar-bakarrik egiten den dantza.

Bukatu ondoren, 14:30ak aldera, hain zuzen, basoan barrena berriz herrira bueltatu ziren, datorren urtean berriz ariko direlakoan.



San Martinen gosaldi ondoren, Dantzarinea baserri aldera joan ohi dira. N. URBIZU



Gero eta gehiago dantzatu, gero eta aldaera gehiago egiten dituzte batzuk, esaterako, hanka gehiago luzatu. N.U.

Laburrak

Etziko bilkuran, D3M eta Askatasunaren mozioa

AMEZKETETA » Etzi 20:30ean Amezketako udaletxean ohiko bilkura egingo dute. Bertan, besteak beste, ondoren zehazten diren gaiak aztertuko dituzte: Telefonicarean obra lizentzia eskaera, ADSL zerbitzua eskaintzeko. Mozioa: D3M eta Askatasuna hautagai-zerrenden jarduna etetearen aurrean. Aurtengo herriko eta beste kultur eragileen diru laguntzeaz ariko dira ere.

Seniorren arteko lau partida larunbatean

PILOTA » Euskadiko Kluben arteko Pilota Txapelketako partidak izango dira Beotibarren datorren larunbatean. 10:00etan hasiko dira eta Aurrera-Saiaz ariko da jokatu diren lau partidetan. Lehengoan San Miguel, bigarrean Ozkarbi, gero Paz Ziganda eta bukatzeko Zazpi-Iturri izango dira aurkariak. Guztiak senior mailakoak izango dira, azkenekoa Ohorezko Mailakoa izanik.

Etzi, bular minbiziaren goiz detekzioaz ariko dira

ALEGIA » Bular minbiziaren goiz detekzioari gero eta garrantzi gehiago ematen zaio. Bada, Katxalin, Bularreko eta Ginekologiako minbizia duten Emakumeen Elkarteak hitzaldia antolatuko du Alegian etzi honen inguruan. Bular minbiziaren arrazoiak azterketaz, tratamenduz, prebentzioaz... hitz egingo dute, bideo emanaldi eta guzti. 17:00etan izango da, Kultur Etxean Maria Jesus Mitxelenaekin.

Komikia

Martin Mantxo


INAUTERIAK 2009

OSAKIDETRAK AHOLKATZEN DU:
MOZORRO HOTZAK EZ JANZETA
BESTEAK BESTE,
ADAN ETA EVA, KROMA/NON
GIZONA ETA EMAKUMEA, TARZAN,
BENIDORMEKO BAINULARIA, MONLI,
KONTXAKO NUDISTA, ORZOWEI,
ANIMAL BATISTA (PRESSIN CATCH),
ARTISTA PORNOA, IANOMAMA
BERTAKOA, CONAN BARBAROA,
HILOKO VENUSA, E.A.



INAUTERIEK ZURE OSASUNA
KALTE DEZAKETE, ETA BAITA
ZURE INGURUAN DAUDENENA.
ARDURA HAR EZAZU!

OSAKIDETZAREN
Aholku bat.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai
Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Gaur zer?

- **06:00.** Udal Txistulari Bandak Alborada joko du Udaletxeko arripetan, Berdura Plazan eta Felipe Gorriti Plazan.
- **08:00.** Pattar zezena Zezen Plazan. Ondoren kalejira.
- **10:30.** Plaza Berrian sokamuturra, txarangak alaituta.
- **11:00.** Karroza eta konpartsen irteera.
- **15:45.** Herriko txistulari bandak, ohiturazko ibilbidea eginez, *Idiarena* pieza joko du.
- **16:00.** Kalejira San Esteban, Kabila eta Veleta-Aiz Orratz txarangekin, Plaza Zaharretik Zezen Plazara.
- **16:30.** Zezenak Zezen Plazan; txarangak eta txistulariak arituko dira ikuskizuna alaitzen. Ondoren kalejira.
- **19:00.** Dantzaldia Berdura plaza San Esteban, Kabila eta Veleta-Aiz Orratz txarangekin.
- **23:30.** Incansables Zaharrak txarangaren irteera.
- **00:00.** *Sardinaren hileta* konpartsen irteera Gure Txokoa elkartetik.

Garraio publikoa

- **TSST.** Egunez zerbitzu gehiago, bidai kopurua areagotuz, Tolosa eta Donostia arteko bidai zuzenean. Gaez, Donostia-Lasarte-Andoain-Villabona-Irura-Tolosa ibilbidea, 21:15, 21:30, 21:45, 22:15 eta 22:45ean; Tolosa-Irura-Villabona-Andoain-Lasarte ibilbidea, berriaz, 00:00etatik 06:00etara orduero.
- **Hiribusa.** 07:30etik 10:00etara ohiko ibilbidea egingo du (Santa Klara - Foruen etorbidea - Geltoikia - lurreamendiko errotonda - lurre - Paper Eskola - lurreamendi (beheko arkupea) - Usabal kiroldegia - Usabal industrialdea - Amartz - Amartz 30 - San Blas - Iparragirre - Bizkaia kalea - Kondeaneko Aldapa 3 - Santa Klara - Klinika - Santa Klara) 30 minutuko maiztasunarekin. Ondoren, ibilbide motza egingo du, Zubiberrian hasi eta amaitzen dena, 10:30etik 14:30era eta 16:00etatik 22:00etara.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 67 09 15.
- **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar kalea, 25. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneren eta iritzien erantzunkizunik.



Eguraldiak ez du giroa zapuzten

Gehiegi bota ez bazuen ere, euria egin zuen atzokoan, baina arrazoi horrengatik giro onak ez zuela etenik izan esan daiteke. Gainera, ezin kexatu aurtengo Inauterietan egin duen eguraldiarekin, okerragoa egingo zuela espero baitzen aurreko egunetakoa ikusita. Ea ba, azken egunean ere eguraldi ona mantentzen den.

I. GARCIA



Tamalez errepikatzen direnak

Badirudi jaietan ez dagoela legerik, eta ez dela ezer eta inor errespetatu behar. Herria zaborrez beterik ikus daiteke, zaborrontziak egongo ez balira bezala. Herria kizintzeaz gain, txikizioak eragitea edota lapurretak egitea ere oso ohikoa bilakatzen da, tamalez, jaietan. Atzokoan, esaterako, Alde Zaharrean, txikizio horien hainbat adibide ikus zitezkeen. N. URIBIZU

A Agurrak

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitzaan: Udaletxeko bulegoa

agurrak